


Gazteek enplegua sortzea eskatzen diote nagusiki Eusko Jaurlaritza berriari


EAEko gazteek enplegu-sorkuntza sustatzea eskatzen diote Eusko Jaurlaritza berriari, nagusiki (horixe eskatzen dute EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteen % 70ek). Horren atzetik, osasun-prestazioei eta zerbitzuei (% 49), hezkuntza-sistemaren kalitateari (% 45), gizarte-laguntza eta -zerbitzuei (% 27) eustea, eta etxebizitza eskuratzea erraztu dezala (% 25) eskatzen diote.

Horixe dio Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren mendeko [Prospekzio Soziologikoen Kabineteak](#) kaleratutako azken [Euskal Soziometroak](#). Txosten hori 2012ko urrian egindako inkesta batean oinarritzen da eta [Gazteen Euskal Behatokiak](#) EAEko 18 eta 29 urte bitarteko gazteek emandako erantzunak aztertu eta gero azaltzen ditu datu hauek.

Enplegu-sorkuntza bultzatzeko eskari hori ez da harritzekoa. Izan ere, gazteen hiru laurdenek uste dute EAEko egoera ekonomikoa txarra edo oso txarra dela. Ikuspegi negatibo horrek goranzko joera izan du: azken bost urteotan erregistratutako balioak irauli ere egin ditu. Garai hartan, gazteen % 72ren ustez, Euskadiko egoera ekonomikoa ona edo oso ona zen. 2012an, ordea, ehuneko berberak (% 72) uste du txarra edo oso txarra dela.



EAEko arazorik nagusienak zein diren galdetuta, 2012an, lau gaztetatik hiruk lan-merkatuari lotutakoak aipatu dituzte (22 puntu gora 2007an baino) eta jarraian, arazo ekonomikoak (% 5, 2007an eta % 39, 2012an). 2007an etxebizitza zen EAEko arazorik nagusiena (% 68), gazteen iritziz; 2012an laugarren arazo bilakatu da (EAEko gazteen % 17k aipatu baitute).



Gazteen arazo pertsonalei bagagozkie, lan-merkatuari lotutako kezkak eta arazo ekonomikoak dira nagusi. Areago, bi aukera horiek nabarmen areagotu dira azken bost urteotan: lan-merkatuari lotutako kezkak aipatzen dituztenak % 49 ziren [2007](#)an eta 2012an, aldiz, % 71 dira; arazo ekonomikoak aipatu dituztenen ehunekoa % 14tik % 32ra igo da azken bost urteotan.

Gazteen erdiek ia (% 48) aitortu dutenez, eurek zein etxeko kideren batek lana galdu dute azken urteotan; % 43k diotenez, soldata-murrizketak izan dituzte.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

